

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2011ko ekainaren 28a. VIII. urtea. 2.251. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## San Joan jaiak atzean utzita, Sanpedroak ospatzen asteko unea da

Asteasun eta Tolosako Urkizu auzoan gaur hasiko dira festak; Leaburun dultzaineroek iragarriko dituzte jaiak asteazken goizean ◦3



## Getaria-Tolosak irabazi du traineruen lehen estropada

Gipuzkoako Traineruen Liga hasi berri da Pasaian; Getaria-Tolosako neskek 22 segundoko aldea atera zioten San Juani ◦6



## Tailerrak, irteerak, eta jokoak, Tolosako Uda Gaztearekin

Gazte Topaguneak berriz ere antolatu du ekimena; gaurkoan gaztetxoek gay harrotasunaren eguna ospatuko dute ◦2

→ **Juanjoxe Lizaso eta Arrate Garin garaille, Zizurkilen.** Segalarien Azkartasuneko Gipuzkoako Txapelketa izan zen Zizurkilen herenegun. Legorretako Arrate Garinek bigarren urtez jantzi du txapela, eta Juanjoxe Lizaso asteasurak, aldiz, lehen aldiz irabazi du txapelketa. ◦6

**3008** GURE INGENIARIEN NEURONA GUZTIAK DITUZU ESKURA HEMEN

**5008**

**PROBATUZ GERO, HARTUKO DUZU**

TOLOSA MOTOR, S.A.  
PEUGEOT KONZESIONARIOA  
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938  
[tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)

**P-3008**  
**P-5008**

Errausketa zero truki berriz martxan!  
Errausketa labe propizterekin.

# Afrika, gure jatorria



**Bioaniztasunetik**  
Jon Ander Galarraga  
Biologia

**B**erri ere iritsi dira *patera* bezala ezagutzen diren txalupa txiki horiek, esperantzez betetako gizon, emakume eta umez lepo. Aukera berri baten bila, Afrika zaharretik Europa modernora, miseria gorritik miseria zurira. Gertaera honek, gizakiaren historiako beste parta baten antza handia dauka.

Orain milioika urte Europa izozpean omen zegoen eta *Homo Sapiens*ak, zure eta nere arbasoak, Afrikako goxotasunean omen zeuden bertako sabana berde eta oparoan bizitzaz ahal zen neurrian gozatzen.

Gure Lur planeta berotzen hasi zenean ordea, Afrikako goxotasun berdea, berotasun gorria bihurtu zen eta *Homo Sapiens* talde batek, beharrezko beharrez, Europara alde egin zuen, baina ez *patera* batean, oinez baizik! Europa izoztuta omen zegoen, baina Lur planeta berotzean bertako izotza ere urtu egin omen zuen eta Europan klima goxo eta oparoa zegoen.

Nolako sorpresa hartu zuten gure arbasoek Europara iritsi eta bertan beste gizaki mota bat bizi zela ikusi zutenean: *Neanthertalak*. Gizaki txikiak ziren 1,50 metro ingurukoak, sudur handikoak, buru zapalekoak eta gorpuzkeraz zabalekoak; Europa hotzera ederki egokituta zeuden gizaki zuri eta ilegorriak omen ziren.

Gure arbaso afrikar *Homo Sapiens*ak, ehiza eta arma garatuagoak omen zituen eta pixkanaka *Neanthertalari* lekua kendu zion.

Gainera *Neanthertala* Europa hotzera egokituta zegoen gizaki mota zenez, eta Europa jada berotzen ari zenez, *Neanthertala* pisikana desagertu egin zen. *Homo Sapiens*ak berak utzitako lekua hartu zuen eta dakigun bezala mundu guztira zabaldu zen.

Harrigarria da ikustea, historian zehar europarrok Afrikari eman diogun egurra: Kolonizazioak, esklaboak, gerrak... Nonbait ahaztu egin zaigu gure afrikar jatorria, nonbait ahaztu egin zaigu orain milioika urte gu ere pateretan etortzen diren etorkinen antzekoak izan ginelako, aukera berri baten bila Afrika beltzetik Europa zurira eta nola ez, erabat ahaztu zaigu, Afrikatik ateraz ziren gure arbaso haiek guztiz beltzak zirela.

Agian zutabe xume hau irakurritan, zenbait konturatuko da gure azal zuria, eguzki gutxiago leku batera eboluzionatu zuen azal beltz bat dela eta gure arbasoek begiratzen badiegu, ziurrenik azken albisteetan agertu diren gizon, emakume eta haur hoiek berdin berdinak zirela.

Eta azalaren kolorea gutxi inporta zaion zutabe xume honi buruzko iritzien zain geratzen naiz: [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com).



## Irudia



## 'BATERAGUNE AUZIA' SALATU DUTE

Atzo hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalean, ETaren aginduz polo subiranista osatzen salaztea egotzita, *Bateragune auzia*. Bertan, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez, Sonia Jacinto, Txelui Moreno, Mañel Serra

eta Amaia Esnal ezker abertzaleko kideak epaitu zituzten. Eskualdeko hainbat herritan, elkarretaratzeko egin zituzten *Epaiketa politikorik ez, aterabideak aurrera!* lelopean, ezker abertzaleko epaituei babesa emateko. ITZEA URKIZU

## Irudia



## ZALAKAIN OMENDU DUTE

2010. urteko ekainaren 24ean, Villabonako Mikel Zalakain iheslari politikoa zendu zen Korsikan. Urteurrenaren harira, omenaldia egin zioten Villabonan, pasa den igandean, hilak 25. Mikel Zalakainek 1987an ihes egin zuen, eta 25 urte berandugo, minbiziarekin hil zen. Villabonako Amnistiarren Aldeko Mugimenduak herritarrei eskerrak eman zizkion. HITZA

## Amarozko XIII. Antzeki Astea hasiko da bihar

**I. Urkizu** Tolosa

Urtero bezala, Amarozko auzoko festen atarian, antzerkia izango da protagonista bost egunez. Ekainaren 29an hasi, eta uztailearen 3ra bitarte, Amarozko auzoko txokoetan burutuko dituzte antzezlanak.

Egunero emanaldi bat izango da. Bihar, 19:00etan, Los Gorrienes taldeak *Un paseo por el mar* emanaldi eskainiko du.

Ostegunean, hilaren 30ean,

Irantzu Mantxoren eskutik *Rabasadako oroitzapenak* izango da, 19:00etan. Ostiralean, 18:30ean izango da hitzordua, Zurrumurru taldearekin; *Txurrimurri eta Morriston zirkon* antzerkia eskainiko dute haiek. Asteburua Biri-bil zirkon taldeak hasiko du, 16:30ean, umeentzako zirkon taldearekin. 18:30ean, berriz, Xabier Larreak *Filamento Farolero* eskainiko du. Igandean, azken emanaldia izango da: Los Kikolasen *Malabaristas*.

## Uda Gaztea hasi dute jada Tolosako Gazte Topagunean

Ekainean eta uztailean, tailerrak, irteerak, jokoak eta antzekoak antolatatu dituzte gazteentzako

**I. Urkizu** Tolosa

Beste urte bezala, Gazte Topaguneak Uda Gaztea ekimena antolatu du gaztetxoentzat. Irteerak, tailerrak edo festak izango dira, asteleheneetatik ostegunetara bitarte, ekainean eta uztailean.

### ↓ Uda Gaztea 2011

- **Ekainak 28.** Gay harrotasunaren eguna.
- **Ekainak 29.** Arcachonera irteera.
- **Uztailak 5.** Karts-etara irteera.
- **Uztailak 6.** Kamisetak margoetako tailerra.
- **Uztailak 7.** Pizza tailerra.
- **Uztailak 12.** Piragua irteera.
- **Uztailak 13.** Ile apaindegi tailerra: estensioak.
- **Uztailak 14.** Txindokiko abentura parkera.
- **Uztailak 19.** Zaldian ibiltzera.
- **Uztailak 20.** Wii + PlayStation.
- **Uztailak 21.** Udako festa.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**↳ Egitarauak****ASTEASU****EKAINAK 28, GAUR**

- **10:00.** Jaien hasierako haurren txupinazoa. Ondoren, krosa eta marrazketa lehiaketa.
- **12:00-14:00 eta 15:30-18:00.** Haur parkea frontoian.
- **14:00.** Haurren bazkaria plazan.
- **18:00.** Txorromorro antzerki taldearekin *Gramola* dantzialdia plazan.
- **20:30.** Sorginaren jaitziera, txupinazoa eta kalejira.
- **22:30.** Bertso saioa frontoian Lujanbio, Egaña, Arzallus, Maia, Irazu eta Agirre bertsolariekin. Ondoren, trikitia kalean: Jon Oztolaza eta Aitzol Txapartegi.

**EKAINAK 29, BIHAR**

- **10:00.** Diana.
- **11:00.** Meza Nagusia. Gero, Elizmendirin: Hamaiketako, sokadantza, eta Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketako finalak. Aurerebenjaminak: Ugaitz Usabiaga-Adur Tapia; benjaminak: Julen Huitzi-Lander Aizpurua.
- **17:30.** Alboka taldearen kalejira.
- **18:00.** Asteasuko eskolak eskainita, musika jaialdia izango da plazan: Trikitilariak, panderojoleak, txalaparta eta txistu taldea.
- **19:00.** Herriko musikarien kalejira.

■ **23:00.** Gugaz taldearekin erromeria plazan.

**EKAINAK 30, ETZI**

- **11:00.** Meza. Ondoren, Aitzondo Elkarteak Herriko Jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako.
- **13:00.** Herri kirolak. Lapazaran taldearekin, lasto altxaketa, lasto botatzea, ingura eta gurdipropa. Harri-jasotzaileak: Aimar Irigoien eta Izeta II.a.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria frontoian. Trikitilariak: Xapre eta Zaharra. Bertsolariak: Telleria eta Zeberio.
- **18:00.** Herriko dantzarien emanaldia.
- **19:00.** Egan taldea.
- **22:30.** Egan taldea.

**UZTAILAK 1, OSTIRALA**

- **14:30.** Kuadrilen bazkaria plazan.
- **18:00.** Eskandalue elektrotxarangarekin kalejira.
- **21:30.** Herri afaria plazan. Ondoren, DJ Oihan Vega.

**UZTAILAK 2, LARUNBATA**

- **10:30.** Asteasuko auzoen arteko futbol torneo. Taldeak: Kalea, Elizmendi, Goiballa eta *Moraleja berria*.
- **16:30.** Karta txapelketak frontoian. Mus txapelketa herrikoia: 16 urte arte eta 16 urtetik aurrera. 15:45-16:15, izen-ematea. 16:30, txapelketaren hasiera.

Bestalde, Txintxon Txapelketa herrikoia, 16 urtetik gorakoentzat.

■ **18:00.** Zezen txiki eta poneyak.

■ **19:30.** Frontoian, Asteasuko Aitzondo Txirridulari Elkarteak antolatutako Asteasuko Pala Txapelketaren finala.

■ **23:30.** Musika kontzertua herriko plazan: Kozka, Luz de Putas eta Ze esatek!

**UZTAILAK 3, IGANDEA**

- **11:00.** Pilota jaialdia. Asteasuko Esku Pilota Eskolako txapelketako finalak. Alebinak: Oier Arzamendi - Iker Elizegi; jubenilak: Labaka (Albiztur) eta Iruretagoiena (Asteasu), Mujika (Tolosa) eta Elustondo (Berrobi). Afizionatuak: Xabi Urbietia (Asteasu) eta Galarraga (Bidania), Jon Urbietia (Asteasu) eta Telletxea (Albiztur). Ondoren sagardostatzea plazan (sardinak eta txorixoarekin).
- **18:00.** Herri kirolak Ibergaingo soroan: Asteasuko taldeen arteko lehia. Ondoren Joxe Mendizabalaren *Erromeria*.

**LEABURU****EKAINAK 29, BIHAR**

- **09:30.** Festei hasiera emango zaie dultzaineroen kalejirarekin.
- **11:00.** Meza nagusia. Ondoren, dultzaineroak eta herriko

dantzarien emanaldia. Jarraian, hamaiketako.

■ **12:00.** Leaburuko Toka Txapelketa, herriko plazan.

■ **17:00.** Ume jolasak. Ondoren, txokolate jatea.

■ **21:00.** Barrikotea.

**UZTAILAK 2, LARUNBATA**

- **15:30.** Mus Txapelketa.
- **16:30.** Euskal Herriko Toka Txapelketarako sailkatzea, herriko plazan. Izena eman daiteke 16:30etik 18:00etara, bertan.
- **17:00.** Pilota partidak. Lehenik herriko gaztetxoek jokatuiko dituzte partidak; ondoren, Esnola - Alonsok lau t'erdiko partida jokatuiko dute. Herri afariaren aurretik Andoni Otegi zorionduz *Euskal Presoak Euskal Herrira* argazkia aterako da.
- **21:00.** Herri afaria. Ondoren, bertsolarien lehenengo saioa.
- **23:00.** Harri proba: Leaburuko Jose Manuelen zaldia, Belauntzako Jose Luisen zaldiaren aurka. Ondoren, bertsolarien bigarren saioa, eta jarraian trikitilariak alaituko dute gaua.

**UZTAILAK 3, IGANDEA**

- **10:30.** Euskal Herriko Toka Txapelketako finala.
- **11:00.** Meza nagusia.
- **12:00.** Txakolin dastatzea. Pintxoak ere izango dira. Goiz guztian zehar, zaldian paseoak eman ahal izango dira.

- **18:00.** Herri Kirolak: Arrosipide eta Azurmendi aizkolariak; eta Almitza elkarte segariariak: Bixente Mitxelena, Juan Mari Agirrezabala, Migel Mari Jauregi Altzo eta Joxe Gabirondo. Ondoren, trikitilariekin festei amaiera emango zaie.

**URKIZU****EKAINAK 28, GAUR**

- Txupinazoa eta kanpaiak.

**EKAINAK 29, BIHAR**

- **11:00.** Meza nagusia eta ondoren hamaiketako.

**UZTAILAK 1, OSTIRALA**

- **21:30.** Mus txapelketa eta Alurtxiki elkarte.

**UZTAILAK 2, LARUNBATA**

- **13:30.** Haurren bazkaria eta ume jolasak.
- **21:00.** Auzo afaria eta trikitilariak.

**UZTAILAK 3, IGANDEA**

- Egun guztian zehar, trikitilariak, puzgarriak, barra, urdaiazpiko zozketak...
- **11:00.** Tortilla prestaketa hasiko da.
- **11:30.** Sagardo eta tortilla lehiaketa.
- **12:30.** Toka.
- **18:30.** Bolu txapelketa eta ume jolasak.

# Festazaleek atea irekita izango dituzte

Asteasu eta Urkizun gaur hasiko dira San Pedro jaiak; Leaburun bihar emango diete hasiera festei

**Imanol Garcia**

San Joan jaiak amaituta, San Pedro jaien txanda izango da. Asteasu, Leaburun eta Tolosako Urkizun festazaleei atea zabalduko

dizkiete datozen egunetan. Gaur Asteasun eta Urkizun hasiko dira eta bihar izango da Leaburun jaien hasiera. Festei izena ematen dien San Pedroren eguna bihar da, eta asteburuan ere izango dira hainbat ekitaldi.

Asteasun egunero izango dituzte ekitaldiak. Gaur haurren eguna izango da, etzi jubilatuen eta ostiralean kuadrilena. Leaburun eta Urkizun, biharko egunaz gain, asteburuan pilatu dituzte ekitaldiak. Leaburun ikusmina

sortuko du herritar baten eta belauntzar baten zaldien arteko harri probak larunbat gauean. Urkizun igandean animazio handia izango da, besteak beste, sagardo eta tortilla lehiaketekin.

Leaburun izango da beritasunik, Ostatua berriro zabalduko baita egun hauetan. Bihartik igandera izango da irekita eta ondoren lau egunetan itxita izango da. Uztailaren 8an berriro zabalduko dituzte atea eta hortik aurrera egunero irekita izango da.



Leaburun herriko eta Euskal Herriko toka txapelketak egingo dira. E. EZERZA

**↳ Laburrak****San Bartolome jaietako festa batzordea, gaur**

**IBARRA** ▸ Ibarako Udalak, San Bartolome jaien antolaketarekin jarraitu nahi du. Horretarako, festa batzordea antolatu du gaur iluntzean, 19:30ean. Festa Batzordeak egin du bilkura deialdia, eta udal batzar aretoan izango da. Udalak ibartar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

**Autodeterminazioaren aldeko mosaikorako deia**

**IBARRA** ▸ Txindokiren magalean, Larraitzen, autodeterminazioaren aldeko mosaiko erraldoia egingo da. Mosaiko horretarako 2.000 lagun behar dira. Beraz, Ibarako Udalak joateko deialdia egin nahi die herritarrei. Hilaren 29an entsegu bat egingo dute Larraitzen bertan, 18:00etan. Guztiak gonbidatzen dituzte parte hartzera, eta horretarako 652 775 923, 649 311 757 edo 652 775 923 (Anjel Oiabarbide) telefono zenbakietara deitu behar da.

**Sexu askatasunaren aldeko eguna Leitzan**

**LEITZA** ▸ Leitzaldeko Bilgune Feministak eta Sexu Askatasunaren Lagunek, sexu askatasunaren aldeko eguna ospatuko dute datorren ostegunetan. 20:00etan, mahai-ingurua izango da Aurrera Kirol Elkartearen: *Neska mutil, neska-neska, mutil-mutil... Non zeinekin, nola gure erabakia*. 22:00etan herri afaria izango da, zortzi euroren truke, Atekabeltzan. Txartelak erosteko azken eguna gaurkoa izango da; Torrean eta Peritzan erosi daitezke.

**Iragarki laburrak****LANA**

■ **Zerbitzaria eta sukaldaria.** Tolosako ostalaritza zentro batean, zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dituzte udan lan egiteko. Ezinbestekoa da esperientzia izatea. Lanaldi osoa, goizez eta arratsalde. Interesatuak info@cmujika.net helbidera bidali curriculum edo deitu 661 463 193 zenbakira.

**ALOKAIRUA**

■ **Apartamendua.** Peñiscolan

zazpi pertsonentzako egokitu-tako apartamendua alokatzen da. Hondartza aurrean. Balkoia, igogailua, aire egokitua, parkinga eta bi igerileku. 617 42 89 52.

**GALDUTAKOAK**


■ **Bi txakur.** Gorbea arrazako bi artzain txakur marroi galdu dira. Gazteluko baserriatik alde egin zuten ostegunetan. Ikusi dituenak dei dezala 636 44 22 54 zenbakira.

**Tolosa**



**AHOTSIK GABE GERATZEKO MODUKOAK**

Tolosako San Joan jailetako lau egunak bete-beteak izan dira. Lagun ugari ibili da egunez eta gauetarako giroan mungilduta, dantzari eta kantuar, ahotsak gaitzeraino. San Joan egunean, eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bildi ziren. Euskal Plazkudearen eragile izandako Doroteo Ziaurritz eta Antonia Maria Labaien omenaldia egin zieten. Lanurbatean kuadrilak izan ziren protagonista, eta 1600 lagun inguru elkartu ziren txapelak buruan hartuta. Igandean, besteak beste, errekoritariak eta batelak izan ziren. Bateletan, nesketan lau batel atara ziren eta Orbela tabernako neskek irabazi zuten, eta mutiletan atara ziren sei bateletatik Emendek elkartek lortu zuten lehen postua. M. IBAZURZALDE



**Abaltzisketa**



**SUAREKIN HASITAKO FESTAK EGUZKIAREN BEROAREKIN BUKATU DIRA**

Ostegun gauaz hasitako San Joan jaiek bukatu dituzte Abaltzisketan. Era guztietako ekitaldiak izan dira herri-tarek parte hartzeko: Herriko trikitilariak, asto lasterki-ta, toka txapelketa, pilota partidak, barrikotea, plater ti-

roleta, sagardo dastaleta, Mari Zuhaitzia abentura parkia, triki poteoa, zaldi lasterketa... Txalburu Esko-lak, txerrikumea zozketa du, eta zenbaki saritua 47a izan da. Txartelean agertzen den telefonora deitu be-

hariko da. Hala ere, uztailaren 3an, festa izango dute. 12:30ean, meza nagusia eta ondoren hamaketakoa eta trikitilariak izango dira. Bakal ostean, iluntzera bi-tarteetan trikiti doinuez gozatu ahal izango da. L. GARCIA E. IBAZURZALDE

**Gertu...**  
 VILLARONAKU  
 24 H. **ABERTZALE**

**Anoeta**



**KUKUAK IHES EGIN DU**

Jaiek iragartzen dituen Kukuak ihes egin du Anoetako plazatik. Bost egunez aji giroa izan da nagusi antzaren artean. Haur, gazte eta heldu, guzkiek izan dute herriko jalez gozatzeko aukera. Ostiralean apar festa izan zen bikieneko gozamenetarako. Lanurbatean hauarek herri lasterketan parte hartu zuten, eta gazteen eguna ospatu zu-ten. Igandean bertiz, besteak beste, festak agurtu aurretik antze-taren arteko giza proba izan zen. M. IBAZURZALDE E. IBAZURZALDE

**Belauntza**



**FESTA ETA KIROLA UZTARTU DITUZTE**

Ostegunean hasi zituzten jaiek Belauntzan. Kanpai doinuekin batera pitu zuten sus eta igandea bitar-tean festa giroa bildi dira. Hamaiketako, herri afaria, pintxo lehiaketa, saheski jateak... Izan dituzte tri-pa betetzeko. Kirolean, pilota partidak, zaldi proba edota herri kirol erakustaldia izan dituzte. Haurrek ere beraien tartea izan dute herriko festetan, mairazi lehiaketa edo haur jolasetan parte haruz. Igandean belauntzarrek datorren urtera arte agurtu zituzten San Joan jaiek. M. IBAZURZALDE E. IBAZURZALDE

**Irudikatu mundua BERRIArekin**

**Egin harpidedun eta jaso argazki kamera hau OPARI**

**Zu zara berria**

**Uztailaren 15ean, telebista hau zozte egingo dugu!** Berriaren harpidedunen artean, Super Soinidoren eskuik.

**ERAKOZEMAK:**

- Kamera digitala, 10 megapixelko.
- LCD pantaila, 24 hazbeteko.
- Zoom digitala, 8x argiak hartzeko.
- Magnediskua JPEG biko formatua.
- Mikrofono.
- 20 megapixeleko irazteko dituz.

**ERAKOZEMAK:**

- 32 in (81 cm) LCD, 8 megapixeleko (8 MP) irudi errealitateko kamera, formatu osoa.
- 32 in (81 cm) LCD, 8 MP, Internet bideo-bideo eta Skype® dituzte.
- Bateria Alkalino batera batera erabilgarria.
- Gogoratu! Internet bideo-bideo eta Skype® bideo deribatuak.
- Bateria gizona eta argia mugatu funtzio aipatzen direnak.

**Harremanetarako:** 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

**ALOKATA EGONDU, BIZI ERUSKIDETZA** **berria®**

# Getaria-Tolosak lehen bandera jadanik etxean dauka

Gipuzkoako Traineruen Ligako lehen estropada Pasaiaiko uretan jokatu zen iragan larunbatean

Getaria-Tolosak 22 segundoko aldea atera zion bigarrenari, hau da, San Juani

**Asier Imaz** Tolosa

Batelen eta trainerillen denboraldia amaitu ondoren, traineruen txanda iritsi da. Getaria-Tolosako arraunlariak Gipuzkoako Traineruen Liga eta Euskotren Liga jokatu dituzte ondorengo hilabeteetan. Asteburu batean bat, eta bestean hurrengoa.

Lehen estropada Gipuzkoako Ligari zegokiona izan zen, eta iragan larunbatean jokatu zen Pasaiaiko uretan. Bost traineru agertu ziren, eta hauek bat, Bizkaia, gonbidatu bezala joan zen. Lehian egongo den Hondarribia ez zen Pasaian egon, Sevillan aulki mugikorreko estropada baitzuen.

Getaria-Tolosa zen faboritua eta hasieratik denborarik onenak markatzen hasi zen. Bertako arraunlariak, Amaia Doyaguek, erregulartasuna azpimarratu zuen: «Inork ez zuen pintxatu, eta denbora guztian aldea handituz joan ginen».

Gipuzkoako Traineruen Liga

ren barruan zazpi estropada jokatuko dituzte guztira. Tolosa-Getariak talde sendoa osatu du aurtengoan ere, traineru denboraldiari aurre egiteko asmoz.

Amaia Doyagueren esanetan, erronka nagusiak bi izango dira: «Arraunlari berri batzuk sartu dira, baina joan direnak ere badiugu. Nire ustez maila mantentzea lortu dugu. Denboraldiari begira, bi erronka ikusten ditut: Zarauzko bandera eta Kontxaakoa, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa albora utzi gabe. Helburua iazko maila mantentzea eta hobetzea dela esango nuke».

## ↓ Sailkapena

### Gipuzkoako Liga. Lehen estropada (Pasaia)

1. Getaria-Tolosa	11.15.80
2. San Juan	11.38.15
3. Zumaia	11.40.25
4. Bizkaia (gonbidatua)	11.51.06
5. Orio	12.11.05



Pasaiaiko uretan jokatu da Gipuzkoako Traineruen Ligako lehen estropada. JAGOBA MANTEROLA-ARGAZKI PRESS

## Euskotren Liga asteburu honetan hasiko da

Getaria-Tolosa eta Galiziako taldea dira abuztuaren erabakiko den Ligako irabazteko hautagai nagusiak

**A. Imaz** Tolosa

Euskotren Liga asteburu honetan hasiko da Galiziako uretan, larunbatean. Igandean berriz, Bilbon El Correo bandera jokatuko dute.

Euskotren Liga irabazteko lehian zazpi traineru ariko dira, bi multzotan banatuta. Talde bakoitzak hiru estropada jokatuko ditu, eta horiek jokatuta, multzoko lehen bi onenek final modukoa jokatuko dute Zarauzko III. Ikurriaren barruan. Estropada hau bi jardunaldietara jokatzen dela

kontuan hartuta, Euskotren Ligagan guztira 8 estropada jokatuko dituzte. Azken lehia abuztuaren 14ean izango da.

### Bi faborito argi

Azken urteetako ibilbideari jarraitzen baldin badiogu, bi talde nabarmendu behar dira: Getaria-Tolosa eta Galizia. Besteak beste, eskualdeko arraunlariz osatua dagoen taldeak, «maila mantentzea edo hobetzea» du helburu. Galiziarrei dagokienez, zaila da jakitea nola aurkitzen diren.

Tolosa-Getariako Amaia Doyague arraunlariaren esanetan, aurtengo denboraldian oraindik ez dituzte elkarren aurka indarrak neurtu traineruetan. Ondorioz, larunbat honetan Galiziako uretan gertatzen dena gertutik jarraitzeko asmoa azaldu du, Galiziako taldearen maila ezagutzen

hasteko. Euren txanda igandean iritsiko da, B multzoko taldeek El Correo bandera jokatuko baitute Bilbon.

## ↓ Euskotren Liga

### BI MULTZO

- **A taldea.** Galizia, Orio eta Zumaia.
- **B taldea.** Getaria-Tolosa, Bizkaia, Hondarribia eta San Juan.

### LEHEN ESTROPADAK

- **A taldea.** Camargoko bandera. Maliañon uztailaren 2an, larunbatean, 18:00etan.
- **B taldea.** El Correo bandera. Bilbon uztailaren 3an, igandean, 12:00etan.

## Eskualdeko segalari ugari Gipuzkoako txapelketan

Juanjoxe Lizaso asteasuarrak modalitate honetan lortzen duen lehen txapela eskuratu du

**Erredakzioa** Zizurkil

Bigarren urtez jantzi du Arrate Garinek emakumezkoen Gipuzkoako azkartasuneko txapela, eta lehen aldiz Juanjoxe Lizasok gizonen txapela. Txapelketa igande arratsaldean jokatu zen Zizurkil. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak eta Ziotza Kirol Elkarteak antolatuta. Guztira 18 segalari aritu ziren lehian, eta horietatik

16 eskualdeko gizon-emakumeak ziren.

Emakumeek 35 metro koadroko bi sail ebaki behar izan zituzten, eta azkartasuna eta txukuntasuna hartzen ziren kontuan. Guztira zortzi segalari aritu ziren lehian, zalantza ziren Garazi Ezeiza eta Naroa Geresta ere aritu baitziren.

Lehendabizi gizonzkoak jardun ziren lehen saila ebakitzen, ondoren emakumeek heldu zion euren sailari. Gero gizonen bigarren sailaren txanda iritsi zen, eta azkenik, emakumeek egin beharreko lana amaitu zuten. Zigor denborak lortutakoari gehitu ondoren, 49 urteko Arrate Garinek jantzi zuen txapela. Hortik atze-

ra, eskualdeko zazpi segalari sailkatu ziren. 33 urteko Alazne Etxaburua izan zen bigarrena, eta Tolosaldeko lehena.

### 10 gizonzko

Gizonzkoek 100 metro koadroko bi sail ebaki zituzten, bi txandatan. Guztira hamar segalari elkartu ziren Zizurkil, Arkaitz Arteagak huts egin baitzuen.

Lanak amaituta, eta zigor denborak gehituta, sailkapen orokorreko lehen bederatz postuak eskualdeko segalarien artean banatu zituzten. Hori bai, azkarrena eta txukunena Juanjoxe Lizaso izan zen. 50 urterekin modalitate honetan bere lehen txapela lortu zuen horrela asteasuarrak,

## ↓ Sailkapenak

### Emakumezkoak

1. Arrate Garin (Legorreta)	03:33
2. Alazne Etxaburua (Zizurkil)	04:27
3. Naroa Geresta (Zizurkil)	05:08
4. Yurre Olano (Gaztelu)	05:49
5. Ainara Otamendi (Ibarra)	06:53
6. Igaro Balda (Hernalde)	07:15
7. Garazi Ezeiza	07:28
8. Ainhoa Galarraga (Ibarra)	08:18

07:07ko denborarekin. Bigarrenari, Mikel Alkorta, minutu bat eta 36 segundoko aldea atera zion Lizasok. Hirugarren, Pello Ar-

### Gizonzkoak

1. Juanjoxe Lizaso (Asteasu)	07:07
2. Mikel Alkorta (Asteasu)	08:43
3. Pello Argia (Zizurkil)	09:02
4. Jokin Garmendia (Baliarrain)	09:32
5. Gariokitx Etxeberria (Amasa)	09:54
6. Iñaki Lizaso (Asteasu)	10:30
7. Jokin Etxeberria (Amasa)	10:39
8. Joseba Agirrezabala (Anoeta)	11:38
9. Joakin Garmendia (Bidegoian)	13:16
10. Iban Pardo (Zestoa)	13:54

gaia zizurkildarra sailkatu zen, eta laugarren, Jokin Garmendia baliarraindarra. Hauek ere 40 urteko segalariak.



Zeberio II.a, Etxeberria III.a, Urrutia eta Uterga, ezkerretik eskuinera. MAIALEN ANDRES

## III. Mailako Aizkora Txapelketaren finalean da Irazu

Eskualdeko lau aizkolarik hartu dute txapelketako lehen kanporaketan, Hernanin

### A. Imaz

III. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketako lehen bi finalistak Mikel Larrañaga azpeitiarra eta Jon Irazu zizurkildarra dira.

Hernaniko jaietako egunik garantzitsuenetan, ostiralean, kanporaketa jokatu zen, eta lehen postuetan amaitu zuten biek. Irazurekin batera, Tolosaldeko eta Leitzaldeko aizkolarari gehiago egon ziren Hernanin.

Eskualdeko bigarrena Ruben Saralegi leitzarra izan zen, bosgarren postuan. Atzetik, Xabier Alkizaletze eta Iñaki Agirre gelditu ziren, zazpigarren eta zortzigarrenean.

Txapelketako lehen kanpora-

keta Ezkiaga plazako pilotaleku irekian jokatu zen. Aizkolaria baikoitzak launa pago-enbor kanaerdiko ebaki behar izan zituen.

Pago-enborrak Joxemiel Peña-garikano aizkolaria ohiak plazartu zituen, eta oro har, egokiak suertatu ziren; ez zuen aizkolaria bakar batek ere aitzakiarik jarri. Guztira 11 aizkolaria aritu ziren lehia Hernaniko kanporaketan, hiru txandatan banatuta.

### ↓ Sailkapena

#### Lehen kanporaketa

1. Mikel Larrañaga (Azpeitia)	07:47
2. Jon Irazu (Zizurkil)	07:50
3. Iban Resano (Ergoiena)	08:56
4. Julen Cañamares (Berriozar)	09:05
5. Ruben Saralegi (Leitza)	09:10
6. Raul Kastro (Urrotz)	10:19
7. Xabier Alkizaletze (Asteasu)	10:30
8. Iñaki Agirre (Ibarra)	10:35
9. Unai Aldape (Dima)	11:08
10. Aritz Oregi (Larrabetzu)	12:04
11. Beñat Lekue (Larrabetzu)	12:55

## Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. Kopako finala galdu du Zeberio II.ak

Etxeberria III. arekin osatu du bikotea elduaindarrak; Uterga-Urrutia 40-32 nagusitu dira

### Asier Imaz Elduain

Zumarragako pilotalekuan erremon-te lehia bikaina ikusteko aukera egon zen larunbatean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2011ko Erremonte Koparen finalean. Gorriz Zeberio II.a eta Etxeberria III.a kantxaratu ziren, eta urdinez, Uterga-Urrutia bikotea. Finala azken txanpan erabaki zen, 26nako berdinketa ostean.

Zumarragako frontoi laburrean, bai behintzat erremonterako, lau pilotari handi elkartu ziren. Osagarri hauek kantxan jarrita, normalena partida bikaina ikustea da, eta txapela tartean izaki, are gehiago. Lehia ikusgarria izan zen, eta norbait nabarmen-tzekotan, adituek Urrutiak egini-ko lana azpimarratu zuten, «kantxa guztian biderkatu baitzen».

Partidaren hasieran ordea, Urrutia jaun eta jabe egin baino lehen, Zeberio II.ak pilotari bizitasun handia eman zion; elduaindarrak maisu aritu zen. 26na jarri arte, bi bikoteek parekotasun handia erakutsi zuten. Une horretan ordea, Urrutiaren indarra erabakigarria suertatu zen. Tantoan agintzen hasi zen, eta Etxeberria III.ak huts handirik egin ez bazuen ere, aukera pilotak utzi zizkion Utergari. Honek, ez zuen hutsik egin eta ordura arteko

bere jokoari buelta ematea lortu zuen. Amaieran, urdinek 40-32ko emaitza lortu zuten.

### Gaur, Galarretan

Erremonteak ez du etenik egingo, eta gaur jaialdia egongo da Hernaniko Galarreta pilotalekuan. 16:30etik aurrera hiru partida jokatuko dira. Zeberio II.ak lehia nagusian jokatu du, Gaztelu lagun duela. Aurkari bezala Agirre-sarobe eta San Miguel izango dituzte.



Partida ikusgarria jokatu zuten lau pilotariak. MAIALEN ANDRES

## Gaur jasoko du bere azken saria Pasabanek

‘Euskal herritar unibertsala 2010’ saria jasoko du, Eusko Jaurlaritzak eta Kutxaren eskutik

### A. Imaz Tolosa

Eduarne Pasaban mendizale tolosarrak gaur jasoko du *Euskal herritar unibertsala 2010* saria, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko

Kutxak sortutako garaikurra. Euskadiren irudia kanpoan zabaldu duten pertsona, elkarte edo euskal entitateak saritzea da aipamen honen helburua. Saria bere kirol-ibilbide oparogatik emango diotela azaletu dute antolatzaileek. Eduarne Pasaban 8.000 metro baino gehiago dituzten munduko 14 mendiak igotzen aurreneko emakumea izan da, eta 2009an Eusko Jaurlaritzaren beste sari bat jaso zuen, *Lan onari saria*, hain zuzen ere.

### Hilberriak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



### JOSE MARIA ITURRALDE BLANCO



Ekainaren 26an hil zen, 88 urte zituela.

Elitzakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Golan bego -

Bere emaztea: Rosa Kildal; seme-alabak: Joaquin, Juanma eta Eduarne Armao-  
lea, Anate eta Jose Luis Arizzagaga, Ramon eta Fanny Aranburu, M<sup>re</sup> Jesus eta Jose  
Ramon Doyharzabal, Susana eta Jose Luis Agirrezabala; bilobak: David, Mikel,  
Leyre-Pampi, Ander, Aitzol, Beñat, Julen-Amaia, Iban, Anne; birlobak: Irati,  
Alain, Eukene, Egoltz, Alara; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusak  
eta gainerako ahaldeak. Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizeute,  
eta arren etor zailteztela GAUR ASTEARTEA arratsaldeko 18:00etan Leaburuko  
SAN PEDRO APOSTOLUA parroki elizan, egingo den hiletera.

Helbidea: Gudari, 7.

OHARRA: Gorputz belia Tolosako FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da ASTEARTEA goizeko 11:30ak arte.

TOLOSAN, 2011ko ekainaren 28a



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ibarra Udalak, San Bartolome jaien antolaketarekin jarraitu asmoz, gaur 19:30ean Udal Batzar Aretoan, Festa Batzordearen bilkura deialdia egin du. Udalak ibartar guztiak bertan parte hartzera gonbidatzen ditu.
- **Alegia.** Sagardotegi menua izango dute herriko festetako afarian, uztailearen 16ean. Txartelak salgai daude Kultur Etxean, Jubilatuen tabernan, Hilario Berrin, Eizmendin eta Kurpil tabernan. Haurren herri bazkarirako, uztailearen 14rako, txartelak salgai daude Kultur Etxean.
- **Ibarra.** Langostino Moto Kultur Elkarteak uztailearen 2 eta 3an IX. Langostino Moto Festa antolatu du. Ekitaldietan parte hartu nahi duenak izena eman behar du [langostinomotofesta@gmail.com](mailto:langostinomotofesta@gmail.com) helbidean.

### ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen tabernan hilabete bukaera arte.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa Ekomuseoan iraila bitarte.
- **Ibarra.** Ikasturtean zehar egon diren tailerretan egindako lanak ikusi daitezke uztailearen 8a bitarte Kultur Etxean.

### Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurak

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●● **agurak**

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info

bertako egunkaria

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /  
Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

eraman/bidali zure datuak:

Araba etorbidea 5 behe, atzea • 20400 Tolosa

**egin zaitetz harpidedun!**

## Irudia Abaltzisketa



## IÑAKI AIERBE IZAN DA AZKARRENA

Apustu simple bezain gogorra zen: Iñaki Aierbek eta Iñaki Montoiak kanaerdiko enborra (54 ontza) moztu behar zuten ahal bezain azkar. Tolosako Iñaki Montoia harakinak 7 minutu eta 55 minutu behar izan zituen, eta Iñaki Aierbe ataunda-

rrak berriz, 5 minutu eta 40 segundo. Aierbek, hala ere, bazuen beste oztoporik, aurretik aizkoran ibilia zenez, berak esku bakararra erabili behar izan zuen eta. Azkenean Aierbek etxeratu zituen apustuko 2.000 euroak. SARA GOMEZ

